

MatiaZaleak I. argazki lehiaketa “BAKARDADEARI BEGIRA”

MatiaZaleaketik "Bakardadeari Begira" argazki lehiaketa abiatu dugu, gure gizartean geroz eta zabalduago dagoen fenomeno konplexu baten begirada ezberdinak bildu nahi baititugu.

Aniztasun hori hautemanda, bakardadearekin bizitzeko modu bakarra ez dagoela ikusiko dugu. Batzuetan, desiatutako zeozer izan daiteke, gizabanakoak onartua. Baina batzuetan desiratu gabeko bakardade egoerei aurre egin behar diegu baita ere.

Fenomeno honen ulermen sakonago eta aberatsago batek, estigmaren eta gizarte isolamenduaren inguruko ohiko estereotipoetatik urrun, egoera bakoitza hobeto interpretatzeko gakoak emango dizkigu, pertsona bakoitzaren berariazko beharrei erantzuten dieten esku-hartzeekin.

NORK PARTE HARTU DEZAKE

Pertsona orok partehartu dezake. Kontutan izan adin txikikoa baldin bada, legezko tutoreak osatu behar duela baimena.

GAIA

Lehiaketa honen gaia **bakardadea pertsonengan** da. Horregatik gonbidatzen zaituztegu bakardadearen inguruan irudikatzen diren argazkiak bidaltzera. Pertsonaz inguratutako giro batean bakarrik aurkitu gaitezke. Edo bakarrik bizi gara baina ez dugu bakardaderik sentitzen. Bilatutako bakardadea, edo desio ez duguna izan daiteke. Adinakin zerikusirik ez duen bakardadea. Emakumeen bakardadea. Gizonezkoen bakardadea. Inposatzen diguten bakardadea. min ematen duen bakardadea. Lagundutako bakardadea...

ARGAZKIAK BIDALTZEKO EPEA

Partehartzeko epea **Irailak 18** arte izango da.

NOLA PARTE HARTU

Webguneko formularioa osatu behar da, argazkia txertatu eta partehartzen duen kategoria zehaztu.

Argazkiaren ezaugarriak

- **Digital formatuan** bidali behar dira (.jpg fitxategia), zuribeltzean edo koloretan izan daiteke. Jatorrizko argazkiaren ukitu digital txikiak onartzen dira (argiztapen doikuntzak eta kolorearen saturazioa).
- Partehartzaile bakoitzak **gehienez 5 argazki** aurkeztu ditzazke. Edukia derrigorrez lehiaketaren gaiarekin erlazionatuta egon behar da.

Kategoriak

Bi kategoria proposatzen ditugu, argazkiaren bereizmenaren arabera.

1 KATEGORIA. Bereizmen handikoa. Digitala edo reflex den kamara batekin edo zehaztutako gutxieneko bereizmena onartzen duen telefono mugikor batekin hartuta. Gutxieneko bereizpena “300ppm”. Formatoa “.jpg”

2. KATEGORIA. Gutxieneko bereizmen gabekoa. Edozein gailu mugikorrekin egindako argazkia izan daiteke (telefono edo tableta adibidez). Ez da gutxieneko bereizmena behar. Formatoa “.jpg”

2

SARITUEN AUKERAKETA ETA SARIAK

Epaimahaia MatiaZaleak equipo mixtoa izango da, Matian bizi diren pertsonak, familiartekoak, langileak eta MatiaZale erakundeez osaturik dagoena

Ebazpena Irailaren 27ean emango da, irabazleekin jarriko gara harremanetan.

Adi egon eta jarraitu sare sozialetan, bertan emango dugu aditzera baita ere eta.

Canon Business Center Gipuzkoa eta **Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearen kolaborazioei esker**, irabazleek ondorengo sariak izango dituzte:

1. KATEGORIA:

- Canon kamara réflex bat: EOS 4000D
- Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko argakigintza kurtso bat

2. KATEGORIA:

- Canon argazkiak impresora bat CP 1300
- Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko argakigintza kurtso bat

Gainera, irabazleetako argazkietako bat, bakardadearen inguruan egingo dugun MatiaZaleak ekimen bateko irudia izango da, difusio handia izango duena.

Sarien banaketa Azaroaren 7an izango da, Matiazaleak urteroko ekitaldian.

ZABALTZEA ETA ESKUBIDEEN LAGAPENA

Argazkia aurkezterakoan, oinarriak onartzen dituzu.

Irudiak nahitaez originalak eta argitaratugabeak izan beharko dira, eta ezin izan dira aurkeztu eta/edo sarituak izan beste lehiaketa batean. Gainera, autoreak bermatzen du aurkeztutako argazkiaren gaineko eskubide guztien titular bakarra dela, eta beraz baimena duela irudiak erabiltzeko eta zabaltzeko edo egile-eskubideek babestutako beste pertsona batzuen lanak baldin badaude hauen baimena duela baita ere.

Leihaketan parte hartzeak Matia Fundazioari aurkeztutako obren lagapena ematen du erreproduzio, banaketa, komunikazio publiko eta eraldaketan, Jabetza Intelektualaren legediaren arabera, edozein komunikabide, IRABAZI ASMORIK GABE, KONPROMEZU ETIKO BATEKIN eta legediak onartzen duen epe luzeenean.

Bidalitako argazkiak edozein euskarrietan erabili ahalko dira, aurretiko komunikaziorik gabe, beti ere autorearen izen eta abizenak azaltzen direlarik.

Matia Fundazioak ez du bere gain hartzen bere atarian ikusgai dauden argazki-lanetatik baimenik gabeko deskargen erantzunkizunik.

Era berean, datu pertsonalak MatiaZale datu basean sartuko dira, MatiaZale aitortza eginez eta horrela puntualki hau bezelako ekintza eta ekimenei buruzko informazioa jasoko duelarik, MatiaZale proiektuaren barnean ematen diren berriak. Ez nahi izanez gero, jakinarazi horrela idatziz info@matiazaleak.net posta elektronikora.

Datu pertsonalak babesteari buruzko legeak xedatutakoak betetzeko (EBko 2016/679 Araudia), aipatu eskainitako datu pertsonalak (email, telefonoa...) argazkia aurkeztean, fitxero batean sartuko direla, eta honen helburu bakarra lehiaketa honetako kudeaketa burutzea izango da.

GURASOEN EDO LEGEZKO TUTOREEN BAIMENA

Adin txikikoa bada argazkia aurkezten duena, beharrezkoa da gurasoek edo legezko tutoreek osatzea web formularioa adin txikikoari baimenduaz.